

**AKTA / ACTA**  
**GIZARTE KONTSEILUA/ CONSEJO SOCIAL**

<b>Deialdia egin duena</b> Convoca	<b>Daniel Zulaika</b> Presidentea / Presidente
<b>Data, tokia eta ordua</b> Fecha, lugar y hora	<b>2020ko abenduak 10 / 10 de diciembre de 2020</b> <b>Bilera birtuala zoom bidez / Reunión Virtual a través de zoom</b> <b>16:30 (1. deialdia) / 16:30 h (1ª convocatoria)</b> <b>17:00 (2. deialdia) / 17:00 h (2ª convocatoria)</b>
<b>Amaiera ordua</b> Hora de finalización	<b>18:55ean / A las 18:55 horas</b>

**GAI-ZERRRENDA:**  
**ORDEN DEL DÍA**

<b>1.- 17:00-17:05</b>	
<b>Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea</b>	<b>Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior</b>
<b>2.- 17:05-17:10</b>	
<b>Gizarte Kontseilua 2021an</b> <b>DANIEL ZULAIKA</b>	<b>El Consejo Social en 2021</b> <b>DANIEL ZULAIKA</b>
<b>3.- 17:10-17:20</b>	
<b>COVID-19 eta Donostia. Egungo egoera</b> <b>ENEKO GOIA</b>	<b>La COVID-19 y Donostia. Situación actual</b> <b>ENEKO GOIA</b>
<b>4.- 17:20-17:30</b>	
<b>Auzoa egitea COVID-19 epidemian</b> <b>KORO AMUNARRIZ</b>	<b>Hacer barrio en la epidemia COVID-19</b> <b>KORO AMUNARRIZ</b>
<b>5.- 17:30-17:35</b>	
<b>Nola bizi dugun COVID-19a</b> <b>BEGOÑA CABALEIRO</b>	<b>Cómo vivimos la COVID-19</b> <b>BEGOÑA CABALEIRO</b>
<b>6- 17:35-17:45</b>	
<b>COVID-19ri buruzko hausnarketa</b> <b>MARKEL ORMAZABAL</b>	<b>Una reflexión sobre la COVID-19</b> <b>MARKEL ORMAZABAL</b>
<b>7- 17:45-17:50</b>	
<b>Nola bizi dugun COVID-19a</b> <b>AIMAR INSAUSTI</b>	<b>Cómo vivimos la COVID-19</b> <b>AIMAR INSAUSTI</b>

8.- 17:50-18:05	
<b>2020ko aurrekontu-egoera eta 2021ari dagozkion lehentasunezko ildoak</b>  <b>JAIME DOMINGUEZ-MACAYA</b> Ekarpinak / Galderak	<b>Situación presupuestaria 2020 y líneas prioritarias del correspondiente a 2021</b>  <b>JAIME DOMINGUEZ-MACAYA</b> Aportaciones / Preguntas
9.- 18:05-18:10	
<b>Nola bizi dugun COVID-19a</b> <b>MARISOL ARZALLUS</b>	<b>Cómo vivimos la COVID-19</b> <b>MARISOL ARZALLUS</b>
10.- 18:10-18:20	
<b>COVID-19ri buruzko hausnarketa</b> <b>AITZOLE ARANETA</b>	<b>Una reflexión sobre la COVID-19</b> <b>AITZOLE ARANETA</b>
11.- 18:20-18:25	
<b>Nola bizi dugun COVID-19a</b> <b>RICARDO DIEZ</b>	<b>Cómo vivimos el COVID-19</b> <b>RICARDO DIEZ</b>
12.- 18:25-18:40	
<b>E2030DSS Estrategia</b> <b>KEPA KORTA</b> Ekarpinak / Galderak	<b>Estrategia E2030DSS</b> <b>KEPA KORTA</b> Aportaciones / Preguntas
13.- 18:40-19:00	
<b>Eztabaida eta saioaren amaiera</b>	<b>Debate y cierre de la sesión</b>

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**  
HAN TOMADO PARTE EN LA SESIÓN:

<b>AGUIRREZABALA</b>	<b>ISABEL</b>	TURISMO SOZIETATEAREN AHOLKU BATZORDE KONTSEILUA - CONSEJO CONSULTIVO DE LA SOCIEDAD DE TURISMO (Donostia Turismo)
<b>AMONDARAIN</b>	<b>YOANNA</b>	GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUA - CONSEJO COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO (Fundación ADSIS)
<b>ANTON REMIREZ</b>	<b>RAUL</b>	NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN
<b>ARANBURU</b>	<b>HARKAITZ</b>	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AMARA BAI(AMARA)
<b>ARANETA</b>	<b>AITZOLE</b>	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN DONOSTIA
<b>ARRILLAGA</b>	<b>AINHOA</b>	MATIA FUNDAZIOA-FUNDACIÓN MATIA
<b>ARZALLUS</b>	<b>MARIA SOLEDAD</b>	HIRITARRA /CIUDADANA
<b>ARZALLUS</b>	<b>M. NEKANE</b>	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL PNV-EAJ
<b>ARZELUS</b>	<b>ANDER</b>	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

<b>BARCENA</b>	<b>FÉLIX</b>	ZAHARREN TXOKOAK- HOGARES DE JUBILADOS (GOIKO GALTZARA ELKARTEA/ASOCIACION)
<b>BERNARAS</b>	<b>AMAIA</b>	GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA - PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA
<b>BERZOSA</b>	<b>JUAN CARLOS</b>	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV LANTXABE (AIETE)
<b>CABALEIRO</b>	<b>BEGOÑA</b>	INGURUMEN KONTSEILUA - CONSEJO MEDIO AMBIENTE (Emaus Fundazioa/Fundación Emaus)
<b>CEA</b>	<b>GERMÁN</b>	KIROL ELKARTE KONTSEILUA - CONSEJO CLUBES DEPORTIVOS (San Sebastián Gipuzkoa Basket)
<b>DÍEZ MUIÑO</b>	<b>RICARDO</b>	DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTRE
<b>ECHEZARRETA</b>	<b>ARRATE</b>	FAMILIA URGARIEN ELKARTEAK - ASOCIACIÓN FAMILIAS NUMEROSAS (LILURALDI)
<b>FERNANDEZ</b>	<b>MIREN ARANZAZU</b>	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AVERIL (LOIOLAKO ERRIBERAK)
<b>GARCÍA</b>	<b>IÑIGO</b>	MERKATARITZA KONTSEILUA - CONSEJO COMERCIO (San Sebastián Shops)
<b>GARMENDIA</b>	<b>MARISOL</b>	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PSE
<b>GOIA</b>	<b>ENEKO</b>	DONOSTIAKO ALKATEA-ALCALDE SAN SEBASTIÁN
<b>IDOETA</b>	<b>M<sup>a</sup> JESUS</b>	PARTAIDETZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA CONCEJALA DELEGADA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA
<b>INSAUSTI</b>	<b>AIMAR</b>	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
<b>IRABIEN</b>	<b>JOSUNE</b>	EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO
<b>IRAOLA</b>	<b>ANDONI</b>	REAL SOCIEDAD
<b>IRIGARAY</b>	<b>ESTHER</b>	GIPUZKOAKO FUNDAZIO OZEANOGRAFIKOA FUNDACIÓN OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA
<b>JOHN</b>	<b>BELKIS</b>	ETORKINEN KOLEKTIBOA - COLECTIVO DE INMIGRANTES (ASODEUS )
<b>KORTA</b>	<b>KEPA</b>	DONOSTIAKO ESTRATEGIA BULEGOA- OFICINA DE ESTRATEGIA DE SAN SEBASTIÁN
<b>LARREA</b>	<b>JUAN LUIS</b>	KIROL FEDERAZIOAK-FEDERACIONES DEPORTIVAS- (FUTBOL FEDERAZIOA/FEDERACIÓN DE FÚTBOL)
<b>LEKUONA</b>	<b>PILAR</b>	<b>LEHENDAKARIORDEA - VICEPRESIDENCIA</b> ELKARGO PROFESIONALEK - COLEGIO PROFESIONALES (ERIZAINZAKO ELKARGOA/COLEGIO DE ENFERMERIA)
<b>LUQUIN</b>	<b>ELENA</b>	GIZARTE EKINTZA KONTSEILUA - CONSEJO ACCIÓN SOCIAL (GURUTZE GORRIA)
<b>MALKORRA</b>	<b>MIKEL</b>	MINUSBALIOTASUN FISIKOAK DITUZTEN PERTSONAK KOORDINAKUNDEKO ORDEZKARI BAT - REPRESENTANTE COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDADES FÍSICAS
<b>MARQUET</b>	<b>IÑIGO</b>	MONDRAGON KORPORAZIOA - MONDRAGÓN CORPORACIÓN
<b>ORMAZABAL</b>	<b>MARKEL</b>	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL EH BILDU
<b>RIEZU</b>	<b>XABIER</b>	DEUSTOKO UNIBETSITATEA-UNIVERSIDAD DE DEUSTO
<b>SALABERRIA</b>	<b>AITOR</b>	KULTUR KONTSEILUA - CONSEJO CULTURA (Taller Kultur Lantegia)
<b>TELLEZ</b>	<b>OSCAR</b>	CADENA SER

<b>UGALDE</b>	<b>ROSA</b>	<b>ELKARGO PROFESIONALEK   COLEGIO PROFESIONALES COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA   GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZA ELKARGO OFIZIALA</b>
<b>ZARRA</b>	<b>OIHANA</b>	TABAKALERA
<b>ZUBIA</b>	<b>JAVIER</b>	GIPUZKOAKO BAZKUNDEA -CÁMARA DE GIPUZKOA
<b>ZULAIKA</b>	<b>DANIEL</b>	<b>LEHENDAKARIA - PRESIDENTE</b> HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA   MEDALLA MÉRITO CIUDADANO

**BILERAN PARTE HARTU DUTE ( Ezin izan dira identifikatu)**

HAN TOMADO PARTE EN LA SESIÓN (No se han podido identificar)

<b>IPADKOLDOMARTINEZ</b>		
<b>IPAD</b>		
<b>OIHANA</b>		

**BILERAN PARTE HARTU DUTE (BOTORAKO ESKUBIDERIK GABE)**

HAN TOMADO PARTE EN LA SESIÓN (SIN DERECHO A VOTO)

<b>AMUNARRIZ</b>	<b>KORO</b>	Ausokide-Vencindad solidaria Bidebieta
------------------	-------------	--

**LEGE ZUZENDARIA / DIRECCION JURIDICA:**

- Juan Carlos Etxezarreta

**OGASUN ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK**

CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS

- Jaime Dominguez Macaya

**HERRI PARTAIDETZA / PARTICIPACIÓN CIUDADANA**

- Eva Salaberria

**GIZARTE KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA /**

SECRETARIA TECNICA DEL CONSEJO SOCIAL:

- Judith Moreno
- Sonia Galache
- Naiara Egimendia

**BERTARATZEA DESENKUSATU DUTENAK / EXCUSAN ASISTENCIA:  
ETORRI EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

<b>AIZPURUA</b>	<b>ANDER</b>	KUTXA (GIZARTE EKINTZA - OBRA SOCIAL)
<b>APAOLAZA</b>	<b>XABIER</b>	OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILUA – CONSEJO DE LA MEMORIA HISTÓRICA (Genozidioaren biktimen elkarte)
<b>ARRIETA</b>	<b>MADDI</b>	LAB
<b>ARTOLA</b>	<b>GEMA</b>	GURASO BAKARREKO FAMILIEN ELKARTEAK - ASOCIACIONES DE FAMILIAS MONOPARENTALES (ASFAMOGI)
<b>BARBA VERA</b>	<b>SANTIAGO</b>	HIRITARRA /CIUDADANO
<b>CIGANDA</b>	<b>PEDRO</b>	ZAHARREN TXOKOAK - HOGARES DE JUBILADOS (ERDIALDE ELKARTEA/ASOCIACION)
<b>COROMINAS</b>	<b>BORJA</b>	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PP
<b>DIAZ</b>	<b>LALA</b>	BERDINTASUNAREN KONTSEILUA - CONSEJO IGUALDAD (Asade Elkartea)
<b>DIEZ</b>	<b>JOSÉ M<sup>a</sup></b>	UGT
<b>DIEZ MINTEGUI</b>	<b>FERNANDO</b>	HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO (BERA BERA R.T. Club Deportivo)
<b>ERAÑA</b>	<b>JESÚS M<sup>a</sup></b>	BETERRI-KOSTAKO INDUSTRIALDEA, S.A (Zuatzu)
<b>FORNIES</b>	<b>HAIETT</b>	GAZTE KONTSEILUA - CONSEJO JÓVENES
<b>GARCÍA</b>	<b>CARLOS</b>	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
<b>GARCÍA</b>	<b>JOSE M<sup>a</sup></b>	CCOO
<b>GARCIA CERRATO</b>	<b>LETICIA ROSIBEL</b>	HIRITARRA /CIUDADANA
<b>GARCÍA-VELILLA</b>	<b>RAFAEL</b>	UDAL PLANEAMENDUKO KONTSEILUA - CONSEJO PLANEAMIENTO MUNICIPAL (Ondarearen Defentsa Elkartea/Asociación Defensa Patrimonio)
<b>GOMEZ SAN JOSE</b>	<b>MARIA TERESA</b>	HIRITARRA /CIUDADANA
<b>GONZALEZ</b>	<b>IGOR</b>	DBUS –DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA/ COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN
<b>LEZA</b>	<b>IMANOL</b>	EUSKO TREN
<b>MANCISIDOR</b>	<b>JUAN</b>	ADEGI
<b>MARTINEZ</b>	<b>KINO</b>	<b>GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE GIPUZKOA</b>
<b>MARTINEZ</b>	<b>IÑAKI</b>	GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA FEDERACIÓN MERCANTIL COMERCIANTES DE GIPUZKOA
<b>MARTINEZ DE ARTOLA</b>	<b>PEDRO</b>	MUGIKORTASUN KONTSEILUA - CONSEJO MOVILIDAD (RACC)
<b>MARTINEZ ETXABEGUREN</b>	<b>LUIS ANTONIO</b>	HIRITARRA /CIUDADANO
<b>PEREZ IRAZUSTA</b>	<b>ICIAR</b>	OSAKIDETZA (Donostialdea ESI / OSI Donostialdea)
<b>PILAPANTA</b>	<b>GABRIEL ESTEBAN</b>	HIRITARRA /CIUDADANO

<b>RIÑÓN DIEZ</b>	<b>JOSE M<sup>a</sup></b>	RENFE ALDIRIKOAK - CERCANÍAS
<b>SALVADOR</b>	<b>CESAR</b>	PASAIKO PORTUKO AGINTARITZA/AUTORIDAD PORTUARIA PASAJES
<b>SÁNCHEZ</b>	<b>JOSE MANUEL</b>	AENA DONOSTIAKO AIREPORTUA - AEROPUERTO DE SAN SEBASTIÁN
<b>SÁNCHEZ</b>	<b>MIKEL</b>	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV Morlanstarrak Auzo Elkartea (MORLANS)
<b>TABERNA</b>	<b>DAVID</b>	DIARIO VASCO
<b>TRIGOS</b>	<b>ANDER</b>	EUSKARAREN KONTSEILUA - CONSEJO EUSKERA (BAGERA ELKARTEA)
<b>URBIETA</b>	<b>USOA</b>	IKASLEEN GURASO ELKARTEAK - ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES DE ALUMUNNOS Y ALUMNAS - AMPAS (BAIKARA)
		AUZOTAR ELKARTEA//AAVV PARTE ZAHARREAN BIZI(PARTE ZAHARRA)
		ELA SINDIKATUA
		KULTUR ERAKUNDEA-ENTIDADES CULTURALES

<b>PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK</b> DATOS DE PARTICIPACIÓN:  47 + 3 Ezin izan dira identifikatu = 50	<b>POLITIKOAK   POLÍTICAS-POLITICOS: 7</b>  <b>Emakumezkoak / Mujeres = 4</b> <b>Gizonezkoak / Hombres = 3</b>
	<b>HERRITARRAK   CIUDADANÍA: 31</b>  <b>Emakumezkoak / Mujeres = 14</b> <b>Gizonezkoak / Hombres = 27</b>
	<b>TEKNIKARIAK   TÉCNICAS Y TÉCNICOS: 9</b>  <b>Emakumezkoak / Mujeres = 6</b> <b>Gizonezkoak / Hombres = 3</b>

Dokumentu honetan jaso dira saioan zehar jorratu diren gaiak eta egin diren ekarpenak, bertan landutakoaren lekukotza eduki ahal izateko.

Ez dira hitzez hitz jaso saioko parte hartzaileek egin dituzten adierazpenak, baina modu fidagarrian bildu nahi dira esandakoaren edukiak, baita, horrekin batera, ikuspegi orokorretik laburbilduta ere.

El presente documento recoge las cuestiones tratadas y las intervenciones que se realizan a lo largo de la sesión, con objeto de poder disponer de un testimonio de lo allí tratado.

No presenta de manera literal lo expuesto por las diferentes personas que participaron en la sesión, pero sí pretende reflejar su contenido de manera fidedigna y, a su vez, abreviada desde una perspectiva general.

### SAIOAREN BILAKAERA / DESARROLLO DE LA SESIÓN:

#### 1.- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea

Daniel Zulaikak, Gizarte Kontseiluko presidentek, hasiera eman dio bilerari 17:00etan, ongietorri agurraren ondoren, eta Kepa Kortari eman dio hitza, Donostiako Estrategia Bulegoko zuzendari-koordinatzaileari. Honek iruzkin tekniko batzuk egin ditu, bilera modu onean egiten laguntzeko.

Jarraian, aurreko bilerako akta onartzea proposatu du, horri buruzko aipamenik ez dagoen kasuan. Akta onartuta geratu da 17:05ean.

#### 2.- Gizarte Kontseilua 2021ean

Gai zerrendaren lehenengo puntuaren barnean, Daniel Zulaikak beste pandemia bat ekarri du gogora, HIESaren pandemia, alegia, 80. hamarkada amaieran bereziki “gay”-en kolektiboari eragiten ziona. Heriotzak ekarri zituen tragedia hark, baina, aldi berean, inflexio puntu bat ere izan zen; sinbolo bat izan zen diskriminazioaren kontrako eta kolektibo honen eskubide zibilen aldeko borrokan, eta ikerketaren aldeko bultzada bat ekarri zuen biologiaren esparruan. Horrek laguntza eman du koronabirusaren txertoaren kasuan.

#### 1.- Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior

Daniel Zulaika, presidente del Consejo Social, declara abierta la sesión a las 17:00, tras el saludo de bienvenida, y cede la palabra a Kepa Korta, director-coordinador de la Oficina de Estrategia de Donostia / San Sebastián, quien realiza unos comentarios técnicos para facilitar el buen desarrollo de la sesión.

A continuación, propone la aprobación del Acta de la sesión anterior, en caso de que no haya ningún comentario al respecto. El acta queda aprobada a las 17:05.

#### 2.- El Consejo Social en 2021

Dentro del primer punto del orden del día, Daniel Zulaika recuerda otra pandemia, el sida, que a finales de los años 80 afectaba especialmente al colectivo “gay” y que, junto con la tragedia de las pérdidas humanas, significó también un punto de inflexión, un símbolo contra la discriminación en la lucha por los derechos civiles de este colectivo y un impulso a la investigación en el campo de la virología que han propiciado la vacuna del coronavirus.

“Krisi garaiak aukera garaiak dira” esaldia nabarmenduz, aipatu du egoera dramatikoekin batera aukerak sortzen ari direla, adibidez, balkoiei berriro garrantzia ematea eta duela gutxi horren inguruan Donostiako hirigintza arauak aldatu izana. Era berean, Gizarte Kontseiluari dagokionez, aipatu du erronkei buruz hausnarketa egiteko aukera dagoela (adibidez, populazioaren gaztetzea, zahartze aktiboa edo merkataritzaren erronkak) eta, gainera, beste egoera batzuetan ezinezkoak izango ziren proiektuak bultzatzeko aukera dagoela.

Aurreratu du 2021ean barrena jarduera bat garatu nahi dela hilero. Gizarte Kontseiluaren bilera bat, hitzaldi bat, online bidez eginiko mahai inguru bat... izan daitezke jarduera horiek.

17:10ean Eneko Goiari eman dio hitza, hiriko alkateari

### 3.- COVID-19 eta Donostia. Egungo egoera

**Eneko Goiak** hiriko egoera aipatu du, pandemiarekin lotuta. Donostiako herritarrek osasun krisiaren lehenengo fasean, uda artekoan, agerturiko borondate ona eta elkartasuna azpimarratu ditu.

Era berean, aipagai izan ditu ongizate mailen arteko desberdintasuna areagotzea, kohesioa eta “josturen” irekiera.

Horri buruz, Máximo Goikoetxea ekarri du gogora, belaunaldien arteko itun bat aldarrikatzeko. Itun horren helburua izango litzateke belaunaldien arteko konplizitatea lortzea, gatazkak saihestuz.

Horrez gain, alkateak aipatu du pandemia ikusteko modua eta bizitzeko eta nozitzeko modua nahiz hari emaniko erantzunak desberdinak ari direla izaten belaunaldien artean. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da belaunaldien arteko itun bat.

Jarraian, Daniel Zulaikak hartu du hitza, eta Koro Amunarriz aurkeztu du, Auzokide Elkartekoa.

Haciendo alusión a la frase “los tiempos de crisis son tiempos de oportunidades” menciona que junto a las situaciones dramáticas están surgiendo oportunidades, como el redescubrimiento de los balcones y la reciente modificación de las normas urbanísticas de Donostia en este sentido. Igualmente, respecto al Consejo Social señala la oportunidad de reflexionar sobre los desafíos (como el rejuvenecimiento poblacional, el envejecimiento activo o los del comercio) y de impulsar proyectos que, en otras circunstancias, no hubieran sido posibles.

Adelanta que a lo largo de 2021 se pretende desarrollar una actividad cada mes, que podrá ser una reunión del Consejo Social, una conferencia, una mesa redonda on-line,...

A las 17:10 cede la palabra a Eneko Goia, alcalde de la ciudad

### 3.- La COVID-19 y Donostia. Situación actual

**Eneko Goia** se refiere a la situación de la ciudad en relación con la pandemia haciendo hincapié en la buena voluntad y la solidaridad de la sociedad donostiarra en la primera etapa de la crisis sanitaria, hasta el verano.

Habla también del incremento en la diferencia entre los niveles de bienestar, en la cohesión y de la apertura de “costuras”.

Hace, en este sentido, un recordatorio de la figura de Máximo Goikoetxea, para propugnar un pacto intergeneracional, encaminada a conseguir complicidad entre generaciones, evitando conflictos.

El alcalde señala además que la percepción y la forma de vivir y sufrir la pandemia y las respuestas están siendo diferentes entre generaciones, por lo que un pacto entre generaciones resulta más necesario que nunca.

A continuación Daniel Zulaika toma la palabra para presentar a Koro Amunarriz, de la Asociación Auzokide.



#### 4.- Auzoa egitea COVID-19 epidemian

**Koro Amunarriz** 17:20an hasi da bere aurkezpenarekin. Hasteko, eskerrak eman ditu aukera honengatik, “Auzokide-Bidebietako Auzo Solidarioa” bizilagun taldearen izenean (oraindik ez du elkarte kategoria), eta haren lema aipatu du: “Behar duzun laguntza, uste duzun baino gertuago”. 2020ko otsailean sortu zen Auzokide, eta auzoarekin loturiko pertsonak osatzen dute. Bizilagunen arteko lankidetzeta eta laguntza ditu helburu, eta doako eta elkartasuneko laguntza, mota guztietakoa, eskaintzen die bizilagunei.

Osasun alarma egoeran eginiko jarduerak aipatu ditu (adibidez, bonbillak aldatzea mugikortasun arazoak dituzten pertsoneri, brikolaje lanak, etab.). Laguntza mota hauek behar dituzten pertsonen profila aipatu du; bereziki, adin nagusiko pertsonak dira. Duela gutxi egin diren jarduera gisa, aipatu du mobilizazioak egin direla, Bidebietan zeuden banketxe bulego bakarrak berriro irekitzea eskatzeko, eta, horrez gain, kontaktuak izan direla Auzoen Zinegotzigoarekin eta bizilagunen taldean interesa duten pertsonekin.

17:32an, Daniel Zulaikak Markel Ormazabali eman dio hitza, eta atzeratu egin du Begoña Cabalerioren txanda, arazo teknikoengatik.

#### 5.- COVID-19ri buruzko hausnarketa

EH Bilduko zinegotzi **Markel Ormazabalek** gogoeta egin du COVID-19ri buruz. Bere azalpenari jarri dion izenburua izan da “Zoriontasuna hor dago”, eta, bertan, bereziki azpimarratu du “tokiko muskulatura” indartzearen beharra. Bere iritziz pandemiaren aurretik ere krisian zeuden lau esparruei buruzko laburpena egin du: ekonomiaren-finantzen esparrua, energiaren esparrua, klima alderdia eta bioaniztasunaren arloa. Lau esparru horiekin batera, adierazi du beste esparru batzuetan ere krisia dagoela: zaintzen arloko krisia, elikadura arlokoa, demografikoa, psikologikoa, kultura aniztasunaren eta hizkuntzen esparrukoa eta politika instituzionalaren arlokoa.

#### 4.- Hacer barrio en la epidemia COVID-19

**Koro Amunarriz** comienza su presentación a las 17:20, agradeciendo la oportunidad en representación del grupo vecinal (que aún no tiene rango de asociación) “Auzokide - Vecindad Solidaria” de Bidebieta y citando su lema “La ayuda que necesitas, más cerca de lo que te imaginas”. Formado en febrero de 2020, Auzokide está compuesto por personas vinculadas al barrio y dedicado a la colaboración y ayuda vecinal, ofreciendo asistencia colaborativa y gratuita de todo tipo al vecindario.

Realiza un recorrido por las acciones desarrolladas durante el estado de alarma sanitaria (como cambiar bombillas a personas con problemas de movilidad, labores de bricolaje, etc.). Hace mención al perfil de las personas que requieren estas asistencias, principalmente personas mayores. Como acciones más recientes, cita las movilizaciones para solicitar la reapertura de las únicas oficinas bancarias que había en Bidebieta y los contactos llevados a cabo con la Concejalía de Barrios y con personas interesadas en el grupo vecinal.

A las 17:32 Daniel Zulaika cede la palabra a Markel Ormazabal, posponiendo el turno de Begoña Cabalero por problemas técnicos.

#### 5.- Una reflexión sobre la COVID-19

**Markel Ormazabal**, concejal de EH Bildu, realiza una reflexión sobre la COVID-19 en una exposición que titula “La felicidad está ahí” y en la que hace especial hincapié en la necesidad de fortalecer “la musculatura local”. Hace un repaso de los cuatro ámbitos que, a su juicio, ya estaban en crisis antes de la pandemia: el económico-financiero, el energético, el climático y el de la biodiversidad. Cuatro ámbitos a los que suma la crisis en el ámbito de los cuidados, la crisis alimentaria, la demográfica, la psicológica, la de la diversidad cultural y de idiomas y la política-institucional.

Testuinguru horretan, bere azalpena amaitzeko azpimarratu du garrantzitsua dela komunitatearen estrategia bat izatea, herritarren ongizatea eta zorientasuna lortzeko tresna gisa. Adierazi du tokiko esparruak beti izan duela garrantzia, eta, hain zuzen ere, globalizazioa azkar gertatzen ari den garai honetan, euskal herritar gehienak gune geografiko mugatu batean bizi direla. Horrez gain, aipatu du gauzak nola doazen ikusita handitu egingo dela, datozen urteotan, lurraldearekiko lotura hori. Horregatik, bere ustez, “tokiko muskulatura” indartzea izango da bizi kalitate duina edota degradaturikoa izatearen arteko aldea markatuko duena.

17:44an, Daniel Zulaikak hartu du hitza, eta Begoña Cabalerio aurkeztu du.

#### 6.- Nola bizi dugun COVID-19a

**Begoña Cabaleriok**, Emaus Gizarte Fundaziokoak, bere azalpenaren hasieran aipatu du abenduaren 10ean Giza Eskubideen Eguna ospatzen dela urtero, Nazio Batuek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu zutela oroitzeko. Bereziki aipatu du 25. Eskubidea, zeinak ezartzen baitu pertsona guztiek dutela eskubidea bizi maila egokia izateko eta etxebizitza duina edukitzeko.

Segidan, gogorarazi du konfinamendu garaian egoera zailak bizi izan zirela, itxi egin zirelako ekonomia solidarioko enpresak, janaria etxera eramateko enpresak, gizarteratzeko zentroak... Era berean, gogorarazi du zer eragin izan zuen konfinamenduak “kalean bizi diren” pertsonen kasuan eta bazterketa arriskua dutenen kasuan, beraien ohiko egoera zailak are gehiago zaildu zirelako arlo guztietan.

Pandemiak are gehiago zaildu du prekariedade ekonomikoa, mendekotasunak eta gaixotasunak... Hala ere, adierazi du ahalegin handia egin dela, eta azpimarratu du konfinamenduan egi bihurtu zela,

En este contexto finaliza su intervención subrayando la importancia de la estrategia comunitaria, como herramienta para lograr el bienestar y la felicidad de la ciudadanía. Señala que lo local nunca ha dejado de ser importante y que, de hecho, en una época de rápida globalización, la mayoría de la gente vasca vive su vida en un espacio geográfico limitado. Añade que, viendo cómo van las cosas, ese vínculo con el territorio se intensificará en los próximos años y, por ello, considera que “la musculatura de lo local” marcará la diferencia entre una calidad de vida digna y la de una degradación.

A las 17:44 Daniel Zulaika toma la palabra para presentar a Begoña Cabalerio.

#### 6.- Cómo vivimos la COVID-19

**Begoña Cabalerio**, de Emaús Fundación Social, comienza su exposición haciendo mención de que cada 10 de diciembre se celebra el Día de los Derechos Humanos, conmemorando la aprobación de la Declaración Universal de los Derechos Humanos por las Naciones Unidas y cita expresamente el Derecho Número 25, el que hace referencia al derecho de todos los seres humanos a un nivel de vida adecuado y a una vivienda digna.

Continúa recordando las difíciles situaciones que se vivieron durante el confinamiento con el cierre de empresas de economía solidaria, de comida a domicilio, los centros de inclusión social... y lo que supuso para las personas que viven en “situación de calle” y para aquellas en riesgo de inclusión, sus complejas situaciones habituales se vieron agravadas a todos los niveles.

La pandemia ha dificultado aún más precariedad económica, las adicciones y las enfermedades... Apesar de todo ello, manifiesta que se ha realizado un gran esfuerzo y hace hincapié en que durante el confinamiento se hizo realidad, por otra parte, que no

bestalde, “kalean” jenderik ez egotea. Aspaldiko nahia zen hori, eta errealtate bihurtu zen.

Amaitzeko, Gandhik esandakoa aipatu du: “pobrezia da indarkeria motarik okerrera”, eta gehitu du “gustatuko litzaiokeela Donostian ez egotea horrelako indarkeriarik”.

17:52an, Daniel Zulaikak Aimar Insaustiri eman dio hitza

### 7.- Nola bizi dugun COVID-19a

**Aimar Insaustik**, EHU Euskal Herriko Unibertsitatekoak, bere azalpenaren ardatz izan du nola bizi izan duen eta bizi duen unibertsitateak COVID-19a. Orokorrean, irakurketa baikorra egin du.

Konfinamenduaren hasieratik jarraitu den prozesua agertu du, helburua “ikasturtea salbatzea” zen une horretatik, alegia. Era berean, irakasleek eta ikasleek irakaskuntza birtualean sartzeko egin duten prozesua ere aipatu du. Nola landu den, baita ere, 2020-2021 ikasturtearen antolaketa, hainbat aukera aztertuz eta irakaskuntza bimodala hautatuz; antolakuntza eta segurtasun arloko ahaleginak, eta eginiko teknologia arloko inbertsioa.

Adierazi du orain arte, eta zailtasunak zailtasun, sistema nahiko ondo ari dela funtzionatzen, eta ez direla kutsadura kasu asko jakinarazi unibertsitatean. Amaitzeko, nahiz eta bera irakaskuntza presentzialaren aldekoa izan, orokorrean, adierazi du positiboki baloratzen duela ikasleek eta irakasleek izan duten jokabide arduratsua.

17:59an, Daniel Zulaikak hurrengo agerraldia aurkeztu du, eta Jaime Domínguez-Macayari eman dio hitza.

### 8.- 2020ko aurrekontu egoera eta 2021ari dagozkion lehentasunezko ildoak

hubiera gente “en la calle”, una aspiración largo tiempo buscada se hizo posible.

Finaliza citando a Gandhi “la pobreza es la peor forma de violencia” y añadiendo que “le gustaría que en Donosti no existiera esa clase de violencia”.

A las 17:52 Daniel Zulaika cede la palabra a Aimar Insausti

### 7.- Cómo vivimos la COVID-19

**Aimar Insausti**, de la Universidad del País Vasco UPV-EHU, centra su exposición en cómo ha vivido y vive la universidad la COVID-19, mostrando en general una lectura positiva.

Relata el proceso seguido desde el inicio del confinamiento, cuando el objetivo era “salvar el curso”, así como el proceso de inmersión en la enseñanza virtual seguido por profesores y alumnos. Cómo se ha trabajado también en la organización del curso 2020-2021, contemplando diversas posibilidades y optando por la docencia bi-modal, los esfuerzos organizativos y en seguridad y la inversión tecnológica realizada.

Señala que hasta el momento y pese a la complejidad el sistema está funcionando razonablemente y que no se han constatado muchos casos de contagio en la universidad. Para finalizar, si bien se declara defensor de la docencia presencial, de forma global, valora positivamente el comportamiento responsable de alumnos y personal docente.

A las 17:59 Daniel Zulaika procede a presentar la siguiente intervención, cediendo la palabra a Jaime Domínguez-Macaya.

### 8.- Situación presupuestaria 2020 y líneas prioritarias del correspondiente a 2021

Aurkezpen baten laguntzarekin, Ogasun eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak, **Jaime Domínguez-Macayak**, adierazi du Covid 19k eragin izugarria izan duela hiriaren ekonomian, udalaren diru bilketaren jaitsieran, enpresen itxieran, BPGren beherakadan...

Ekonomiaren ikuspegitik izan diren gertaerarik garrantzitsuenak laburtu ditu: 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa; 3/2020 Foru Dekretua-Araua, maiatzaren 12koa, eta 27/2020 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 4koa. Horiek guztiek eragin handia dute udal aurrekontuan, murrizketetan eta aurrekontuaren jaitsieran. Beste gertaera batzuk ere aipatu ditu, adibidez, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren erabakia. Gertaera horiei esker, aldaketak egin ahal izan dira defizitaren arauketan, zorpetzean, gastu arauan, eta horri esker Aldundiarekin ere akordioa egin ahal izan da, zorpetze ahalmen handiagoa ahalbidetzeko, zehazki esateko, zorpetzea bikoiztu ahal izateko (13 milioi eurotik 26 milioira). Jarraitu du esaten inbertsioak jarri dituela abian udal gobernuak, 14 milioi euroko balioarekin.

Jarraian, Donostiako Udalaren aurrekontu defizitaren aurreikuspenek nola eboluzionatu duten aipatu du (horren arrazoi izan dira diru sarrera arruntak gutxiago izatea eta kapitalaren sarrera txikiagoa izatea, Dbus-en defizita, Sustapenak kudeaturiko ekonomia suspertzeko planak, larrialdietarako eta gizarte babeserako laguntzak eta merkataritzari eta ostalaritzari emaniko laguntzak); maiatzean 79,5 milioiko gutxi gorabeherako defizitaren kalkuluak 52,5 milioikoak izan dira abenduan.

Azaldu du nola finantzatu den hori: udalak zuen superabita, gastu arruntak gauzatzean hobekuntzak, aipaturiko zorpetzearen igoera eta 2020. urte honetarako aurreikusiriko inbertsio batzuk berriro planifikatzea.

Labur aipatu ditu Europako Funtsak, Next Generation EU izeneko Europako Ezohiko Finantzaketa Plana.

Apoyado en una presentación el Concejal Delegado de Hacienda y Finanzas, **Jaime Domínguez-Macaya** va desgranando el impacto terrible del covid-19 en la economía de la ciudad, en la caída de recaudación municipal, el cierre de empresas, la caída del PIB,...

Resume los hitos más importantes que se han producido desde el punto de vista económico: el Real Decreto-Ley 8/2020, de 17 de marzo; el Decreto Foral-Norma 3/2020, de 12 de mayo y el Real Decreto-Ley 27/2020, de 4 de agosto, que en su conjunto tienen un gran impacto en el presupuesto municipal, en la forma de recortes y reducción del presupuesto. También cita otros hitos, como acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto económico, que han permitido cambios en la regulación del déficit, el endeudamiento, la regla de gasto, lo que ha permitido también el acuerdo con la Diputación para posibilitar una mayor capacidad de endeudamiento, en concreto, poder duplicar el endeudamiento (de 13 a 26 millones de €) y continúa, aludiendo a la puesta en marcha de inversiones por valor de 14 millones de € por parte del Gobierno municipal.

Realiza a continuación un apunte sobre cómo han ido evolucionando las previsiones del déficit presupuestario del ayuntamiento donostiarra (derivado de un menor ingreso corriente y un menor ingreso del capital, el déficit de Dbus, los planes de reactivación económica gestionados por Fomento, las ayudas en emergencia y protección social y las destinadas a comercio y hostelería); las estimaciones de un déficit aproximado de 79,5 millones en mayo se ha ajustado a 52,5 millones en diciembre.

Explica cómo se ha financiado esto, con una combinación del superávit que tenía el ayuntamiento, mejoras en la ejecución de gastos corrientes, el mencionado incremento del endeudamiento y con la replanificación de algunas inversiones previstas para este año 2020.

Se detiene brevemente en los Fondos Europeos, el Plan Extraordinario de Financiación Europea Next

Azpirarratu du udala lanean ari dela laguntza horiek eskuratzeko, baina, era berean, adierazi du etorkizuneko inbertsioak direla, ez dutela eragiten aurtengo defizitean; Europar Batasunak ekonomia, ekonomia digitala, ekonomia berdea eta abar suspertzeko zehazturiko parametroekin loturiko proiektu berrietara bideraturiko funtsak dira (erdiak itzuli beharrik gabekoak eta erdiak mailegua).

Amaitzeko, 2021erako aurrekontua aipatu du. Espero da itxita egongo dela 2020. urte amaierarako. Hura onartzeko prozesuaren egutegia deskribatu du, eta aurreratu du pentsatzen dela diru sarreraren gaitasuna txikiagoa izango dela, 2020rako aurreikusitakoa baino 16 milioi inguru txikiagoa.

18:13an, galderen txanda hasi da, eta inork hitza hartu ez duenez, Gizarte Kontseiluko presidentek hurrengo hizlaria aurkeztu du, Marisol Arzallus.

#### 9.- Nola bizi dugun COVID-19a

**Marisol Arzallusek** kontatu du nola bizi izan dituen, herritar gisa, pandemiaren hasierak, eta adierazi du hasieratik kezka izan dela protagonista nagusia: norberaren osasunagatik eta ingurukoen osasunagatik kezka, pertsona bakoitzak balizko sintomen aurrean egin beharrekoaren inguruko zalantzek sorturiko kezka eta COVID-19ren ondorio sozio-ekonomikoen eraginiko kezka.

Aipatu du bera osasun arloko langilea dela, eta, horri dagokionez, nabarmendu du prozesu osoan barrena ziurgabetasuna bizi izan duela. Era berean, txalotu egin du zaharren egoitzetako profesionalen lana, eta haien egoerari buruz gogoeta egitera deitu du.

Marisol Arzallusek 18:21ean amaitu du bere agerraldia, eta eskerrak eman dizkie eginiko ibilbide honetan bidaia lagun eta konplize izan diren pertsona eta erakunde guztiei.

Generation EU, subrayando que desde el ayuntamiento se está trabajando para captar dichas ayudas, pero señala asimismo que son inversiones a futuro, no inciden en el déficit de este año, sino que son fondos (mitad a fondo perdido y mitad préstamo) destinados a nuevos proyectos relacionados con los parámetros definidos por la UE para el relanzamiento de la economía, la economía digital, la economía verde, ...

Finaliza con una mención al presupuesto para el año 2021, que se espera estará cerrado para final del 2020, describe la calendarización del proceso de aprobación del mismo y adelanta que se estima una capacidad de ingresos será menor, unos 16 millones inferior a lo previstos para 2020).

A 18:13 se abre turno de preguntas y al no haber intervenciones, el presidente del Consejo Social introduce a la siguiente ponente, Marisol Arzallus.

#### 9.- Cómo vivimos la COVID-19

**Marisol Arzallus** cuenta cómo ha vivido como ciudadana los inicios de la pandemia y asegura que, desde el inicio, la preocupación ha sido la gran protagonista: preocupación por la salud individual y la de las personas de alrededor, por las dudas a la hora de actuar por parte de cada persona ante posibles síntomas y por las consecuencias socio-económicas de la COVID-19.

Ha hecho referencia a su condición como trabajadora del ámbito sanitario y, en ese sentido, hace especial hincapié en la incertidumbre vivida durante todo el proceso. También ha alabado la labor de los y las profesionales de las residencias de mayores y ha llamado a la reflexión sobre la situación de las mismas.

Marisol Arzallus finaliza su intervención a las 18:21 dando las gracias a todas las personas e instituciones que han sido cómplices y compañeras de viaje en este camino recorrido.



Jarraian, Daniel Zulaikak Aitzole Aranetari eman dio hitza.

### 10.- COVID-19ri buruzko hausnarketa

Elkarrekin Donostia alderdiko **Aitzole Aranetak** hainbat arazo zerrendatu ditu, bere ustez hirian bazirenak jada pandemia baino lehen eta pandemiarekin areagotu direnak. Bere ustez egungo arazo handietako bat dena aipatu du, etxebizitza eskuratzea; bere hitzetan, pandemia hasi zenetik orain arte izan dugun txerto bakarra gure etxeek eskaini diguten segurtasuna izan da, eta gehitu du aukera hori ez duela izan eta gaur egun ere ez duela mundu guztiak hirian. Aipatu du “etxerik gabeko pertsonak” bizi dituzten egoerak eta etxebizitza desagokietan bizi direnen egoerak daudela, eta, era berean, gazteek zailtasunak dituztela hirian bizi ahal izateko. Enplegua aipatu du, eta berdintasun politikekin loturiko guztia indartzeko beharra dagoela. Bereziki aipatu ditu konfinamenduan bizi izaniko genero indarkeria egoerak eta transexualen egoerak.

Bestalde, adierazi du ez dela kasualitatea pandemia garaiko protagonista nagusiak erizainen eta egoitzetako zaintzaileen lanbideak izatea, eta eskatu du balioa eman dakiola zaintzen sektoreari. Arazoen banakatze honetan, berotze globala eta planetaren kutsadura ere aipatu ditu.

Amaitzeko, adierazi du egoera honetatik zerbait ona ere atera daitekeela, hain zuzen ere zenbait gai eztabaida politikorako lubakitik ateratzea eta konpromiso bihurtzea, adostasun zabalak garatzeko eta politika eraginkorrak abian jartzeko. Gai horiek izango lirerateke etxebizitza eskuragarri egitea, enplegu duina, politika feministak eta berdintasunaren aldekoak edo ingurumena babesteko politikak.

18.33an, Daniel Zulaikak Ricardo Diezi eman dio hitza.

A continuación Daniel Zulaika cede la palabra a Aitzole Araneta.

### 10.- Una reflexión sobre la COVID-19

**Aitzole Araneta**, concejala de Elkarrekin Donostia, enumera los problemas que, a su juicio, ya existían antes de la pandemia en la ciudad y que se han intensificado con la misma. Cita el acceso a la vivienda, como uno de los grandes problemas actuales; según sus propias palabras, la única vacuna que hemos tenido hasta la fecha desde el inicio de la pandemia ha sido la seguridad que nos han otorgado nuestras casas y añade que esa opción no la ha tenido ni la tiene actualmente todo el mundo en la ciudad. Hace referencia a las situaciones de “sin hogarismo” y de infravivienda y también a las dificultades de la juventud para poder vivir en la ciudad. Habla del empleo, de la necesidad de potenciar todo lo que tiene que ver con las políticas de igualdad, haciendo especial alusión a las situaciones de violencia de género y a las de las personas en condición de transexualidad vividas durante el confinamiento.

Asegura, por otro lado, que no es casualidad que profesiones como la de enfermeras y cuidadores de residencias hayan sido las grandes protagonistas durante la pandemia y reclama la puesta en valor del sector de los cuidados. En este desglose de problemáticas, cita también al calentamiento global y la contaminación del planeta.

Para finalizar, señala que si puede salir algo positivo de esta situación es precisamente el hecho de lograr que temas como el acceso a la vivienda, el empleo digno, las políticas feministas y por la igualdad o las de protección del medio ambiente dejen de ser una trinchera para la disputa política y pasen a ser un compromiso para el desarrollo de grandes consensos y la puesta en marcha de políticas efectivas.

A las 18:33 Daniel Zulaika cede la palabra a Ricardo Diez.

### 11.- Nola bizi dugun COVID-19a

**Ricardo Diezek**, zientziak hirian duen garrantzia gogorarazi du, eta aipatu ditu unibertsitateak, BERC zentroak, CIC zentroak, teknologi zentroak, osasunaren ikerketa zentroak, enpresak... Ikerketa arloaren ehuna aipatu du, eta adierazi du trinkoa eta indartsua dela, 4.000 enplegu ingururekin eta ratio altu batekin, 22 ikertzaile/ 1.000 biztanleko. Era berean, ikerketara bideraturiko ahalegina aipatu du (BPGren % 2,5aren baliokidea dena). Horrek guztiak eragina du hirian ikerketaren eta ekonomiaren arloan, baina baita kultura bizitzan ere.

Pandemiak zientziaren esparruan izan duen eraginari buruz, adierazi du baldintzatu egin duela jarduera zientifikoa, baina, orokorrean, ikertzaile gehienek beren lanari eutsi ahal izan diotela, modu mugatuagoan baina maila egokian. Hala ere, giza harremanen falta nabaritu da, beste arlo batzuetan bezala.

Zientzia ingurunearen eskuzabaltasuna azpimarratu du, eta azaldu du ikerlari askok beren aletxoak jarri dutela "ahal izan duten tokian", pandemia honi aurre egiten laguntzeko interesa eta ilusioa erakutsiz. Gehitu du diziplina anitzeko taldeak sortu direla, ikerketan bideak irekitzeko balioko dutenak, eta haiek etorkizunean izango duten balioan jarri du begirada.

Azkenik, zientziaren garrantzia eta gizartean duen erabilgarritasuna aldarrikatu ditu. Zientziaren mugak ere aipatu ditu, eta adierazi du ikerketa bere alderdi guztietan sustatzea defendatzen duela.

18:42an, Daniel Zulaikak Estrategia Bulegoko zuzendariari eman dio hitza.

### 12.- E2030DSS Estrategia

**Kepa Kortak** hartu du hitza, eta bileran aurrez azaldutakoaren harira, zientziaren arloan egin den ahalegina eskertu du berak ere. Gehitu du eskerrak

### 11.- Cómo vivimos el Covid-19

**Ricardo Diez**, recuerda el peso de la Ciencia en la ciudad, haciendo mención a las universidades, los centros BERC, los CIC, los centros tecnológicos, los de Investigación en salud, las empresas,... Hace referencia al tejido investigador, denso y potente, con cerca de 4.000 empleos y un elevado ratio de 22 investigadores/as por cada 1.000 habitantes y al esfuerzo dedicado a la investigación (que equivale al 2,5% del PIB), todo lo cual influye en la ciudad desde la perspectiva investigadora y económica, pero también en la vida cultural.

Respecto al impacto de la pandemia en el medio científico, señala que ha condicionado la actividad científica, pero en general, la mayoría del personal investigador ha podido mantener su trabajo de manera más restringida, pero en un nivel apropiado, si bien se ha echado en falta el contacto humano, como en tantas otras áreas.

Hace hincapié en la generosidad del entorno científico, exponiendo que muchos investigadores e investigadoras han aportado su grano de arena "donde han podido", mostrando interés e ilusión para poder contribuir en combatir esta pandemia y, añade, que se han creado equipos multidisciplinares que servirán para abrir caminos en la investigación, poniendo el foco en su valor a futuro.

Revindica finalmente la importancia de la ciencia y su utilidad para la sociedad, así como sus limitaciones, y manifiesta su apoyo al impulso por la investigación en todas sus vertientes.

A 18:42 Daniel Zulaika cede la palabra al director de la Oficina de Estrategia.

### 12.- Estrategia E2030DSS

**Kepa Korta** toma la palabra y, al hilo de lo anteriormente expuesto en la sesión, reitera el agradecimiento al esfuerzo científico que se ha venido

emateko modurik onena zientzian inbertitzea izango litzatekeela, eta hiri honek badaramala jada denbora bat ibilbide hori egiten.

Jarraian, plan estrategikoa eraikitzeko prozesuan jarri du begirada, eta jarraitu den prozesua laburtu du: strategiaren diagnosis egitea, strategiaren kokapena, strategiaren erronkak, etorkizuneko hipotesiak, 2030era begira agertokia eraikitzea, eta, azkenik, strategiaren helburuak zehaztea. COVID-19ren agerpenak eta haren ondorioek eginiko lana berrikustea ekarri dute. Gehitu du Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikorako Batzorde Delegatuarekin gogoeta adostu ondoren, modu mistoan ari direla lanean, zenbait arlotan eta estrategia ildoak eta jarduera ildoak zehazten sakonduz. Helburua da proiektuetara iristea. Eraitza Gizarte Kontseilura itzuliko da, onartua izan dadin.

Jarraian, modu laburrean azaldu ditu helburu estrategikoen barneko kontzeptuak: garapen ekonomiko orekatua, gastronomia, industria sortzaileak, turismo jasangarria, merkataritza berezia eta gertutasuna, gaztetzea, bizi kalitatea-adin nagusikoak, gizarte bazterketa stop, kultura estrategia berria, etorkizuneko udala, hiri garapen jasangarria, hiriko bizitza kalitatea, hiri erresilientea, nazioarteko Donostia eta garapen jasangarrirako helburuak. 18:53an amaitu du agerraldia.

### 13.- Eztatbaida eta saioaren amaiera

Jarraian, Gizarte Kontseiluko presidentek agerraldiei buruzko galde-eskeen txanda ireki du. Inork hitzik hartu ez duenez, eskerrak eman dizkie, bereziki hizlariei beren partaidetzagatik, eta baita bertaratu guztiei eta talde antolatzaileari ere. Ondoren, Daniel Zulaikak eguberri zorientsuak opatu dizkie, eta hurrengo Gizarte Kontseilurako deia egin die. Bilera amaitutzat eman du 18:55ean.

desarrollando, y añade que la mejor forma de agradecimiento sería invertir en Ciencia, recorrido que esta ciudad lleva tiempo desarrollando.

A continuación se centra en el proceso de construcción del plan estratégico, resumiendo el proceso seguido: elaboración del diagnóstico estratégico, posicionamiento estratégico, retos estratégicos, hipótesis de futuro, construcción del escenario de cara al 2030, para llegar a la definición de los objetivos estratégicos. La irrupción del COVID-19 y sus consecuencias ha propiciado la correspondiente revisión del trabajo, realizado. Añade que tras la reflexión consensuada con la Comisión de Delegada para el Plan Estratégico del Consejo Social se está trabajando de una forma mixta, profundizando en determinadas áreas y en la definición de las líneas estratégicas y de acción, con intención de bajar hasta proyectos, indicando que el resultado volverá al Consejo Social para su aprobación.

Seguidamente procede a comentar brevemente los conceptos que subyacen en los objetivos estratégicos: desarrollo económico equilibrado, gastronomía, industrias creativas, turismo sostenible, comercio singular y proximidad, rejuvenecimiento, calidad de vida-mayores, stop exclusión social, nueva estrategia cultural, ayuntamiento del futuro, desarrollo urbano sostenible, calidad de vida urbana, ciudad resiliente, San Sebastián internacional y ODS. Finaliza su exposición a las 18:53.

### 13.- Debate y cierre de la sesión

Seguidamente, el presidente del Consejo Social abre el turno de preguntas y comentarios sobre las exposiciones y dado que no hay intervenciones, tras agradecer de manera especial a las y los ponentes su participación, así como al conjunto de asistentes y al equipo organizador, Daniel Zulaika les desea unas felices navidades y les emplaza al próximo Consejo Social, dando por terminada la sesión a las 18:55 h.